



kontsumOBIDE

KONTSUMOKO
EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO
DE CONSUMO

**KONTSUMOBIDE-KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUAREN ETA AUTOCONTROL
KOMUNIKAZIO KOMERTZIALA AUTORREGULATZEKO ELKARTEAREN ARTEKO
ELKARLAN-HITZARMENA, PUBLIZITATE-JARDUERA KONTROLATZEAREN ARLOKOA**



Bilbon, 2018ko otsailaren 2an



HONAKO HAUEK BILDU DIRA:

ALDE BATETIK, Nora Abete García, KONTSUMOBIDE Kontsumoko Euskal Institutuko zuzendaria –Vitoria–Gasteizen du egoitza, Done Jakue hiribideko 11.ean–, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua sortzeko Legeari (9/2007 LEGEA, ekainaren 29koa, 140. EHAA, 2007ko uztailaren 20koa) eta Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuko zuzendari izendatzen duen Dekretuari jarraituz (207/2016 Dekretua, abenduaren 7koa, 235. EHAA, 2016ko abenduaren 13koa).

BESTE ALDE BATETIK, José Domingo Gómez Castillo jauna, AUTOCONTROL Komunikazio Komertziala Autorregulatzeko Elkarteko ordezkari gisa –elkartearen IFK/IFZ G-81234247 da, Barne Arazoetako Ministerioko Elkarteen Erregistroko inskripzioan 147584 zenbaki nazionala du eta Madrilgo Príncipe de Vergara kaleko 109.ean du egoitza, 5. eta 6. solairuetan–, hitzarmen hau sinatzeko beharrezko ahalmena izanik, AUTOCONTROLEKO Zuzendaritza Batzordeak 2016ko urriaren 6an hartutako erabakiaren arabera, erabakiak eta ahalorde-ematea jasotzen dituen eskritura publikoaren bidez frogatzen den bezala –Madrilgo notario Juan José de Palacio Rodríguez jaunaren aurrean protokolizatua, 2.588 zenbakia–.

ESKU HARTU DUTE

Ordezkatzen dituzten organismo edo entitateen izenean –horiek hitzarmeneko alderditzat joko dira–, elkarri hitzarmen hau sinatzeko bezainbesteko gaitasuna eta ahalmen juridikoa dutela aitortuz, eta horrekin lotuta

HONAKOA ADIERAZI DUTE:

1.- Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua sortzeko Legeak (9/2007 Legea, ekainaren 29koa) 3.1 artikuluan xedatzen duenaren arabera, Eusko Jaurlaritzak kontsumitzaileak eta erabiltzaileak defendatzeko eta babesteko dituen politikak definitzea, planifikatzea, bultzatzea eta gauzatzea da Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren helburua.

2.- KONTSUMOBIDEREN esku dauden eginkizunen artean, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak defendatzea, prestakuntza eta heziketa ematea, bitartekaritza eta arbitrajea sustatzea, kontsultak eta erreklamazioak egiteko prozedurak finkatzea eta aplikatzea eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarrekin arautzea eta sustatzea sartzen dira.


3.- KONTSUMOBIDEK beharrezkotzat jotzen du kontsumitzaileak publizitatearen eta komunikazio komertzialaren arloan babesteko mekanismoak ziurtatzea; Euskal Autonomia Erkidegoko-EUSKADIKO Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren Legeak (6/2003 Legea, abenduaren 22koa) 9. artikuluan xedatutakoa beteko dela bermatuko duten mekanismoak, hain zuzen ere. Artikulu horretan jasotzen denez, Euskadiko administrazio publikoek, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsaren arloan dituzten eskumenen esparruan, behar diren neurriak hartuko dituzte legearen aurkako publizitatearen debekua betetzen dela bermatzeko, eta deuseztatuko dituzte kontsumitzaileek eta erabiltzaileek duten hautatzeko askatasuna nola edo hala murrizten duten saltzeko edo bezeroak erakartzeko bortxazko metodoak, metodo engainagarriak edo erasotzaileak.

4.- Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua sortzeko Legeak (9/2007 Legea, ekainaren 29koa) 4.1.h) artikuluan jasotzen duenez, jarduera ekonomikoko sektore bakoitzean ordezkaritarik handiena duten enpresen eta profesionalen elkarrekin prestakuntzaren eta aholkularitzaren arloko lankidetzak eta -akordioak sinatuko dira, bereziki merkataritza-enpresetara eta kontsumitzaile eta erabiltzaileengana zuzenduak, Institutuaren helburuen eta eginkizunen esparruan.


5.- Europan, Estatuan eta autonomia-erkidegoan, autorregulatzeko eta elkarrekin erregulatzeko mekanismoak sustatzeko eskemetarantz doan bilakaera nabarmen bat

ikusten ari da, Europar Batasuneko estatu kideetan dauden tresna legal, administratibo eta/edo judizial tradizionalen osagarri gisa, horrek administrazio publikoen diziplinazko esku-hartzeak egiteko ahalmenak inola ere murriztu gabe.

Publizitatearen autorregulazioa publizitatea modu eraginkorrean kontrolatzeko bide garrantzitsua da –administratiboaren eta judizialaren osagarria–. Lehia desleialari buruzko Legeak (3/1991 Legea, urtarrilaren 10ekoa), 37. artikuluan, jokabide-kodeak eta autorregulazio-sistemak aitortu eta sustatzen ditu. Ildo horretan, sistema horiek erreklamazioak ebazteko organo eta prozedura independenteak izan beharko dituztela xedatzen du eta publizitate-edukiak aurretik autokontrolatzeko neurri indibidualak edo kolektiboak ere garatu ahal izango direla.




6.- Espainian, 1996tik, publizitate-autodiziplinako erakunde bat dago, Komunikazio Komertziala Autorregulatzeko Elkartearen izeneko (AUTOCONTROL), European Advertising Standards Alliance (EASA) erakundeko kidea. Irabazi asmorik gabeko elkarte da eta Espainiako publizitatea autorregulatzeko sistema kudeatzeaz arduratzen da –elkarteko kideek edo hirugarrenek, beren estatutuen arabera, publizitate ustez legez kontrakoa edo desleialagatik planteatutako erreklamazioak ebazten ditu–. Horrez gain, enpresa iragarleentzako, agentzientzako eta komunikabideentzako aurretiazko kontsulten sistemaz arduratzen da, eta botere publikoekin elkarlan aktiboan aritzen da, publizitateak dagozkion arauak betetzea lortzeko. Haren helburua honako hau da: komunikabide guztien bidez (Internet barne) zabaltzen den publizitatea prozesu ekonomikoan tresna bereziki erabilgarria izan dadin laguntzea, publizitate-etika, kontsumitzaileen eskubideak eta datuen babesaren eta pribatutasunaren arloko araudia errespetatzen direla zainduz, interes profesionalen defentsa baztertuta. Elkarte horren helburuak, besteak beste, honakoak dira: (I) publizitate-etikako kodeak egitea; (II) publizitate ustez legez kontrakoa edo desleiala egiteagatik planteatutako erreklamazioak ebaztea; (III) publizitate-kanpainak aurretiaz gainbegiratzea (Copy Advice®), indarreko araudira egokitu daitezen; (IV) botere publikoekin elkarlan aktiboan aritzea, publizitateak dagozkion arauak betetzea lortzeko.




7.- Administrazio publikoen eta AUTOCONTROLLEN arteko beste elkarlan-aurrekari batzuk daude. Horien artean, publizitate-jardueraren autorregulazioa sustatzeko Kataluniako Ikus-entzunezkoen Kontseiluarekin 2011ko uztailaren 20an sinatutako elkarlan-hitzarmena; publizitate-jardueraren autorregulazioa sustatzeko Kontsumoko Institutu Nazionalarekin 2007ko urtarrilaren 2an sinatutako akordioa; publizitate-jarduera sustatzeko Elikagaien Segurtasunaren eta Nutrizioaren Espainiako Agentziarekin 2008ko urtarrilaren 21ean sinatutako elkarlan-hitzarmena; adingabekoei zuzendutako elikagaien eta edarien publizitatea elkarrekin erregulatzeko akordioa, Elikagaien Segurtasunaren Espainiako Agentziarekin sinatua, 2012ko abenduaren 26an; joko-jardueren publizitatea, babesletza eta sustapena elkarrekin erregulatzeko akordioa, Jokoa Antolatze Zuzendaritza Nagusiarekin sinatua, 2011ko azaroaren 17an; eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziarekin sinatutako elkarlan-hitzarmena, 2013ko urriaren 4koa. Berrikiago sinatutako artean, nabarmentzekoa da telebistako komunikazio komertzialak elkarrekin erregulatzeko sustatzeko akordioa, 2015eko ekainaren 30ekoa, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak (MLBN) eta

AUTOCONTROLEK sinatua. Autonomia-erkidegoei dagokienez, nabarmentzekoak dira, era berean, AUTOCONTROLEK publizitate-jardueraren inguruan sinatutako hiru elkarlan-hitzarmen, kontsumoaren arlokoak: bata, 2014ko urriaren 30ekoa, Kataluniako Kontsumo Agentziarekin; beste bat, 2015eko irailaren 11koa, Madrilgo Erkidegoko Ekonomia eta Ogasun Sailarekin; eta berriena, Gaztela-Mantxako Komunitateen Juntako Osasuneko sailburuarekin sinatua, 2016ko urtarrilaren 28an.



8.- Adierazitakoa aintzat hartuz, eta Europako, Estatuko eta autonomia-erkidegoko araudiak garatutako baterako erregulazioaren printzipioaren ildoan, alderdi sinatzaileen ustez, elkarlanean aritzeak, autonomia-erkidegoko administrazioaren eskumenak eta eginkizunak murriztu gabe, publizitate-jarduera hobeto gauzatzen lagunduko du, eta arlo horretako eskumena, kontrolari dagokionez, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak du. Alderdi esku-hartzaileek ildo horretan helburu eta interes komunak dituztela aitortzen dute. Horren ondorioz, hitzarmen hau sinatzea erabaki dute, honakoen araupean:

ESTIPULAZIOAK



LEHENA.- Elkarlan-hitzarmen honen helburua KONTSUMOBIDE Kontsumoko Euskal Institutuaren eta AUTOCONTROL Komunikazio Komertziala Autorregulatzeko Elkartearen arteko lankidetzaz-esparru bat finkatzea da, kontrolari dagokionez Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren eskumenekoa den publizitatearen jarraipena egin ahal izateko eta errazteko.

Hitzarmenak eta horretatik eratortzen diren jarduerak ezin diete kalterik egin KONTSUMOBIDERI dagozkion eskumenei eta funtzioei, ezta haiek murriztu ere.

BIGARRENA.- Bere eskumenak inola ere murriztu gabe, KONTSUMOBIDEK AUTOCONTROLI kontsumitzaile eta erabiltzaileek publizitatearen inguruan egindako erreklamazioak bidali ahal izango dizkio, Publizitate Epaimahaiak ebatz ditzan, baldin eta erreklamazioak publizitatearen zilegitasunari edo zuzentasun odontologikoari buruzkoa badira.

HIRUGARRENA: KONTSUMOBIDEK, bai publizitatearen arloko edozein jarduera administratibo edo judizial abiatu aurretik, bai hura izapidetzen den bitartean, informazioa eskatu ahal izango dio AUTOCONTROLI publizitate-mezu jakin batek aurretiazko kontsultako prozedura baten edo Copy Advice® baten esparruan aldeko txostena jaso duen jakiteko, baita Publizitate Epaimahaian edo organo baliokide batean eztabaidak ebazteko prozedura baten pean egon den jakiteko ere. Aipatutako bi kasuetako edozeinetan erantzuna baiezkoa izan bada, AUTOCONTROLEK KONTSUMOBIDERI jarduera horien kopia bat helaraziko dio, adierazten zaion bezala eta betiere ahalik eta lasterren.

LAUGARRENA.- KONTSUMOBIDEK, bere ikuskapen- eta zehapen-ahalmenak murriztu gabe, komunikazio komertzial jakin baten kontrako jarduera administratibo edo judizial bat abiatu aurretik, AUTOCONTROLI esku hartzeko eska diezaioke, eta horrek bere araudian finkatutako prozeduren arabera izapidetu eta ebatziko du. Prozedura horiek, besteak beste, kontraesan-printzipioa errespetatu behar dute. AUTOCONTROLEK berehala emango dio KONTSUMOBIDERI bere jardueren emaitzaren berri.



BOSGARRENA.- AUTOCONTROLEN erabakien esku uzten diren iragarki zehatzekin lotutako espediente administratiboen izapidetzean, KONTSUMOBIDEK, kontrako frogarik eduki ezean, iragarki horien arduradunek fede onez jokatu dutela pentsatu ahal izango du, erabaki horiek onartu baldin badituzte.




SEIGARRENA.- AUTOCONTROLEK, hitzarmen honetan jasotakoaren arabera, KONTSUMOBIDERI Epaimahaiaren aurrean izapidetutako publizitate-kasuen berri eman behar dionean, honako prozedura beteko da:

- Erreklamaturako hedabideak edo iragarleak erreklamazioa onartzen badu, KONTSUMOBIDERI onarpenaren berri emango zaio.
- Erreklamaturako hedabidea edo iragarlea Publizitate Epaimahaiaren mende badago, KONTSUMOBIDERI ebazpen loteslea helaraziko zaio, informatzeko helburuarekin.
- Erreklamaturako alderdia Epaimahaiaren aurreko prozeduraren mende jarri ez bada eta, ondorioz, Epaimahaiak ezin izan badu ebazpen lotesle bat emanek kasua behin betiko itxi, Epaimahaiak KONTSUMOBIDERI irizpen ez-loteslea helaraziko dio. Irizpen horretan, erreklamaturako publizitatearen zuzentasunari buruzko iritzia jasoko du, dagozkion ondorioak izan ditzan.
- Autocontrolek, kontsumoaren eta enpresen publizitate-jardueraren arloko edozein jokabide bidegaberaren berri izanez gero, KONTSUMOBIDERI jakinarazi edo salatu ahal izango dio, baldin eta hori izapidetzeko eta –hala badagokio– zehatzeko eskumena KONTSUMOBIDERENA baldin bada.
- KONTSUMOBIDEK AUTOCONTROLI, araudi aplikagarriaren arabera, informatzeko helburuarekin, AUTOCONTROLEN erabakien esku utzi diren iragarki zehatzekin lotutako espediente administratiboen esparruan hartzen dituen erabakien kopia helaraziko dio.

ZAZPIGARRENA.- AUTOCONTROLEK eta KONTSUMOBIDEK, beren eginkizunen esparruan, elkartearen helburuekin lotutako irizpenak, azterketak, proiektuak eta ebazpenak elkarlanean egin ahal izango dituzte publizitate-jardueraren autorregulazioari eta kontrol deontologikoari eragiten dioten auzietan.


ZORTZIGARRENA.- Alderdiek komeni diren publizitate-jarduerarekin lotutako dibulgazio-, prestakuntza- edo azterketa-jarduera bateratuak antolatu eta gauzatu ahal izango dituzte, hala adosten badute. Beste ekintza batzuen artean, publizitatearen arloko araudi legal eta odontologikoa betetzeari buruzko analisiak eta azterketak sustatu edo egin ahal izango dira, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak defendatzearen eta babestearen testuinguruan, eta kontsumoaren arloan.



Jarduera horiek antolatzean, araudi aplikagarria kontuan hartuko da, eta hitzarmenak idatziz jasoko dira, KONTSUMOBIDEREN konturako osoki edo partzialki gastu publikoa dakartenean.

BEDERATZIGARRENA.- Hitzarmen honen jarraipena eta kontrola egiteko, alderdiek Jarraipen Batzorde bat eratuko dute. Batzorde hori aldizka bilduko da eta kide hauek izango ditu:

- KONTSUMOBIDEKO bi ordezkari; horietako bat presidentea izango da.
- AUTOCONTROLEKO bi ordezkari; horietako bat idazkaria izango da.



Funtzionamendurako barne-araurik ezean, batzordea Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legean (40/2015 Legea, urriaren 1ekoa) jasotakoan oinarrituko da alderdien izaerarekin bateraezinak ez diren auzi guztietan.

HAMARGARRENA.- Hitzarmen hau kasuan-kasuan garatzeko eta zehazteko aukera egongo da, berau garatzeko eranskinen bitartez –idatziz jaso beharko dira–, eta, besterik adierazten ez badute, hitzarmen honek bezalako kontsiderazio juridikoa eta ondorio lotesleak izango dituzte.

HAMAIKAGARRENA.- Hitzarmen honek finkatzen duen elkarlan-jarduerak ez du betebeharr ekonomiko edo kontraprestazio berririk sortzen ezein alderdientzat, zortzigarren klausulako bigarren paragrafoan adierazitakoa eragotzi gabe –kasu horretan, erabaki zehatza hartuko da aintzat–.


HAMABIGARRENA.- Alderdiek konpromisoa hartzen dute datu pertsonalak babesteari buruzko Lege Organikoa betetzeko (15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, DBLO) , baita hura garatzeko araudian jasotakoa betetzeko ere; bereziki, abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuan jasotakoa. Lege Organikoa garatzeko erregelamendua onartzen du errege-dekretu horrek, hitzarmen honetatik eratorritako jarduerak direla-eta eskuratzen dituzten datu pertsonalei dagokienez.


Hitzarmena aplikatzearen ondorioz ateratzen edo eskuratzen den isilpeko dokumentazioa eta informazioa ezingo da inolako bitartekorik edo euskarririk erabiliz berregin, ez osoki ez partzialki, eta, beraz, ezingo da informatikoki tratatu edo editatu, ezta hirugarren pertsonen helarazi ere, gauzatze-esparru hertsitik kanpo.

Datu pertsonalak ezin zaizkie beste pertsona batzuei ez jakinarazi ez utzi, ezta gorde ditzaten ere.

HAMAHIRUGARRENA.- Hitzarmen hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean, eta, aurretik indargabetzen ez bada, 2017ko abenduaren 31ra artekoa izango da, baina isilbidez luzatuko da, urtez urte, alderdietako batek ez badu berariaz salatzen idatziz amaitze-data baino hiru hilabete lehenago.

Hitzarmena aurretik indargabetu daiteke, honako arrazoiren bat dela-eta:

- 
- a) Alderdiren batek aurretik modu arrazoituan salatzen badu. Salaketa hori dagokion urtea amaitu baino gutxienez hiru hilabete lehenago jakinarazi behar dio beste alderdiari.
 - b) Bi aldeek hori nahi dutela adierazten badute idatziz.
 - c) Alderdietako bat desegiten edo desagertzen bada.
 - d) Alderdiek hitzarmenean, eranskinetan, garapen-akordioetan edo aplikagarriak diren lege-xedapenetan beren gain hartutako betebeharrak urratzen badituzte. Arrazoi hori dela-eta hitzarmena aurretik indargabetu nahi duen alderdiak lehenago bederatzigarren estipulazioan aipatutako Jarraipen Batzordeari jakinaraziko dio, indargabetu baino lehen irtenbide bat bilatzeko.



Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak erabakiko du, hitzarmena aurretik indargabetu behar bada, martxan dauden jarduerak nola bukatuko diren.

HAMALAU GARRENA.- Hitzarmen hau administratiboa da, eta, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen testu bategina onartzen duen Legegintzako Errege Dekretuak (3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa) 4.1.d) artikuluan jasotakoaren arabera, elkarlan-hitzarmen hau aipatutako legearen aplikazio-eremutik kanpo geratzen da, baina haren printzipio gidariak eta irizpideak aplikatu ahal izango dira hitzarmena interpretatzeko eta aplikatzeko garaian sortzen diren zalantzak eta hutsuneak ebazteko.

Hitzarmen honen aplikazio, interpretazio eta betetzearen inguruan sortzen diren gatazkak, Jarraipen Batzordeak konpondu gabekoak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan ebatziko dira.

Vitoria-Gasteizen egoitza duten administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenako epaitegi eta auzitegiek dute hitzarmen honen ondorioz sortzen diren auziak epaitzeko eskumena.


Eta, ados dauden eta onartzen duten froga gisa, hitzarmen hau egin duten alderdiek, beren ordezkari akreditatuen bitartez, bi kopia sinatu dituzte, goian adierazitako tokian eta egunean.

KONTSUMOBIDEKO zuzendaria,



Nora Abete García

AUTOCONTROLEKO zuzendari nagusia



José Domingo Gómez Castallo